

## Doneztebeko liburutegiaren ipuin ordua bertako txikien balarriak alaitzen ahalegindu nahian

TK aldizkarako irakumena bultzatzeko martxan daukagun ipuin ordua proiektuan berri emateko eskatu zidatenean berehala hasi nintzen artikulu bat idazten eta ez dakit, ohitura faltagatik edo/eta zer dela eta, hagitz zaila egin zitzaidan. Aste berean haurrek eskoletako aldizkari-rako gauza bera eskatu zidatenean errezago suertatu zitzaidan haiek egindako galderak erantzutea, Dakizuenez haurrak hagitz kazetari onak dira eta haiek planteatutako galderak segituz kontatuko dizuek zer den Doneztebeko Liburutegiak antolatzen duen IPUIN ORDUA saioa. Lehendabiziko galdera izan zen zer dela eta jarri genuen martxan proiektu hau. Erantzuterakoan "tranbia zaharraren" ipuina burura etorri zitzaidan eta aprobetxatu nuen beurei kontatzeko. Ipuin hau ezagutzen duten guztiak ulertuko dute zergatik libruzainok gisa proiektuak martxan jartzen ditugun; azken finean, gure "eskilatxo" ordu guzietan martxan egotea nahiko genuke. Gure kasuan ere horrek bultzatu gintuen, nahi genuen gure tranbia zaharra martxan paratu, ezagutaraztea eman eta iruditu zitzaigun haur txikiek gure protagonistak izan behar zutela. Zergatik? Ba, agin magikoa dutelako, irakurmena eta idazmenean murgildurik daudelako, bere misterioak ikasten.

Adin multzo bat hartu genuen, 3, 4, 5 urtekoak alde batetik eta 1. eta 2. mailakoak bertetik.

# 26

Bigarren galdera izan zen helburu edo zer lortu nahi genuen saio hauekin. Altxatzea gazte batzuei ipuinak kontatuz irakurmena bultzatzen dela, ahozketasuna indartzen dela, imaginazioa berpizten dela, liburutegiaren espazioaz jabetzen ahal direla, ipuinek duten magia dastatzen ahal dela... hori guzizia ulertaraztea zaila zela iruditzen zitzaidan. Batez ere, kontutan hartzen baldin badugu ikus-entzunezkoen gizartean murgildurik aunitan literaturari denbora txikia edo garrantzi txikia ematen diogula. Galdera hau erantzuteko galdetu nien ea tranbia zaharraren ipuina gustokoa izan zuten eta dene baietz erran zutenez, komentatu nien saio horietan hori bezalako ipuin zoragarriaz gozatzeko aukera badutela gure txikiek, gainera taldeka, lurrean eserita, bero bero eta liburutegia beurentzat bakarrik izanda.

Beste galdera bat izan zer behar den haurrei ipuinak kontatzeko? Honek erantzun simple du, ipuinak gustokoa izatea hain zuzen ere. Denok badugu buruan noiz irakurzaletu ginen eta noiz animatu ginen ipuinak kontatzera. Nere kasuan Guadalajarako Ipuin Maratoian eta Pello Añorga eta Koldo ameztoy entzutean droga zoragarri honi engantzaturik gelditu nintzen. Eta, edozein drogak bezala, menpekotasuna sortarazten dit eta ezin dut pasatu haurrei ipuinak kontatu gabe. Erran behar dut profesionala izan gabe primerako ipuin kontalari izaten ahal dela. Eta hori baieztatzeko aipatuko dut hemen, gure liburutegian, denetarik izan dugula: margolariak, amak, erizainak, gazteak, atezainak, liburuazaina. Egin froga, denok balio dugu ipuinek duten magia transmititzeko.

Bertze galdera bat zen zer ipuin aukeratzen dugun gure saioterako. Honen ingurua erran behar dut zenbat ikasi dugun eta gozatu garen saio hauek pretatzen. Gure kasuan prestakuntza gustagarria izan da, haur literatura aunitz irakurri dugu. Gomendatzen dugu tristuraren aurkako erremedio ezin hobea da. Liburu sorta irakurrita gehien gustatzen zaizkigunak aukerat-

zen genituen. Adibide gisa aipatuko dizuet zeintzuk balio digute: Elkar, Ilargia nola dastatu, Eric, el coche salvaje, Rufus, El pez arcoiris, Barbantxo, Txan, El erizo de mar, Mariquita perezosa, Musikari ibiltariak...

Bukatazeko aipatu zidaten zer komentatzen ahal nuen Ministeriotik jasotato sariaz. Kasu honetan aipatu behar da hoberena 207 liburuz osatutako lotea izan dela, badugu ipuin gehiago gozatzen segitzeko eta gozamen hori hurreki kontatzeko. Horretaz gain, inportantea izan da prentsan, irrati eta telebistaren bidez liburutegiari propaganda egin zaiolako. Horretaz salastu da herrian eta hori da, hain zuzen ere, liburuzainok egin beharreko lana: jendeari "tabarra" eman, jendea nekarazi gure berriekin, jendea gureganatu, azken finean.

Marga ERDOZAIN  
Doneztebeko liburutegia



## Publicaciones recibidas\*

### Publicaciones periódicas

- AABADOM: *Boletín de la Asociación Asturiana de Bibliotecarios, Archiveros, Documentalistas y Museólogos*, n. 2/2 (1999)
- Aldeezkaria, n. 8 (diciembre 1999)
- Anaquel: *boletín de libros, archivos y bibliotecas de Castilla La Mancha*, n. 6, 7
- Asmoz ta jakitez, Eusko Ikaskuntza, n. 97, 98, 99, 100
- Biblioforum, Fundación Bertelsmann, Primavera 2000
- Biblioteca: *informacions*, Publicació del Servei de Biblioteques de la Universitat Autònoma de Barcelona, n. 19 (1998), 20 (1999)
- Boletín de sumarios, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, n. 35
- Boletín informativo, Ateneo Navarro, febrero 2000, marzo 2000, abril 2000, mayo 2000
- Cedro: *boletín informativo*, n. 16
- Correo Bibliotecario: *boletín informativo de la Subdirección General de Coordinación Bibliotecaria*, n. 37, 38, 39, 40
- Document, Col.legi Oficial de Bibliotecaris-Documentalistas de Catalunya, n. 121, 122, 123